Universidad de Deusto
Biblioteca

# CRISTINAUBAREN JAQUINVIDEA

# AITA ASTETEC

ERDERAZ EGUINA,

CEÑETAN AGUERTU, TA ADIERAZOTEN DIRIAN ITAUNE TA ERANZUTETAN GUEURE FEDECO GAUZARIC BIARRENAC.

*IFINIEDAN BIZCAICO EUSQUERAN*

D. Juan Antonio Moguel *ta Urquiza, Marquinaco Curiac.*

BIAR DAN LEGUEZ.

206669

BILBON:
ADOLFO DEPONT-EN MOLDIZTEGUIYAN.
1840 garren urtian.

Universidad de Deusto
Biblioteca

1

**NOTA** Esta y otras cartillas y devocionarios en bascuence y castellano, y los libros elementales designados por la Inspeccion general de estudios para la enseñanza de la juventud, como tambien papel rayado de todas clases y en blanco, y cuanto se necesite para el surtido de las escuelas se hallará en la libreria de D. Adolfo Depont, en Bilbao frente á la iglesia de S. Juan núm. 3, quien tambien imprime y encuaderna libros, y se encarga de remitir á las personas que necesiten cualquiera de estos efectos y otros que abraza su establecimiento.



## *SARRERIA.*

Cristinau fiel guztiac
Dagoz chito obligauric
Devocinoya artutera
Euren vijotz guztiric,
Jesus gure arguijaren
Curutze santubagaz,
Nun ill gura izaeban
Gu ateratiarren
Pecatubaren mendetic,
Ta arerijo deunguetatic.
Orregaiti bada
Ecandu biar zara
Alan ceñatutera
Ala Aitiaren eguitera
Iru Curutze eguiñaz:
Lenengua becoquian
Jangoicuac librau gaizan
Pensamentu charretatic:
Bigarrena auan
Jangoicuac librau gaizan
Verba deunguetatic;
Irugarrena bularrian
Jangoicuac libraugaizan
Eguite, ta gogo deunguetatic

Universidad de Deusto Biblioteca



Onetara essanagaz:
Curutze ✠ Santiaren
Señalia gaitic
Gueure ✠ arerijuetaric
Librau gaizuz
Gueure Jauna ✠ ta Jangoicua.
Aitiaren, ta ✠ Semiaren,
Ta Espiritu-Santubaren
Icenian. Amen.

## *AITA GURIA.*

Aita guria Cerubetan zagozana: Santificadu bedi zure izena Betor gu gana zure Erreinuba: Eguin bedi zure borondatia, nolan Ceruban alan lurrian. Egunian eguniango gueure oguija egun eguizu: Eta parcatu eiguzuz gueure zorrac, gueuc gueure zordunai parquetan deutzeguzan leguez: Eta ichi ez eguizu tentacinoian jausten: Baña libradu gaizuz gacheric. Amen.



## *AVE MARIJA.*

Ave Marija, gracijaz betia, Jauna da zugaz, bedeincatia zara zu andra guztien artian, ta bedeincatuba da zure sabeleco frutuba Jesus. Santa Marija Jangoicuaren Ama erregutu eguizu gu pecatarijoc gaiti orain, ta gure erijotzaco orduban. Amen.

## *CREDUA.*

Sinisetan dot guztia daiguian Aita Jangoicuagan, Cerubaren, ta lurraren eguillia, ta aren seme bacar Jesucristo gure Jaunagan, cein sortu zan Espiritu Santubaren eguitez ta gracijaz, Jaijo zan Marija Virginiagandic; padecidu eban Poncio Pilatosen aguindubaren beian; izan zan Curutzian josija, ill, ta enterraduba, jatzizan in-

Universidad de Deusto Biblioteca



fernubetara, aric irugarren egunian viztuzan illen arteric, igoeban Cerubetara, an dagó jarriric Aita Jangoico guztia daiquianaren alde escumatati: andic etorrico da viciac, eta illac juzguetará. Sinisetan dot Espiritu Santubagan. Elisa Ama Santa Catoliquia; Santuben comuninoia pecatuben parcacinoia araguijaren viztuera barrija: ta beti iraungo dabén vicitzia. Amen.

## *SALVIA.*

Jangoicuac gorde zaizala erreguiña ta erruquiz beterico Ama, vicitza gozotasun ta esperanza gueuria, Jangoicoac gorde zaizala: Zuri deiez gagoz Evaren ume erbestetuboc, zizpuruz, eta negarrez, negarrezco lecu onetan: Ea bada Andria vitarteco gueuria, biurtu eguizuz guganutz zure begui erruquitzuboc; ta erbesteonen ondoren eracuzcuzu Jesus, ceure sabelebo frutu bedeincatuba. O guztiz bigun! O erruquiorra! O Marija Virgina gozua! Erregutu eguizu gugaiti Jangoicuaren Ama Santia, izan gaitian duin Jesu-Cristoren aguinzarijén. Am.



## JANGOICUAREN LEGUECO

### *aguindubac dirá amar.*

Lenengo irurac dagocaz Jangoicuaren onriari; ta beste zazpirac progimuaren probechubari.

Lenengua, Jangoicua maite izatia gauza guztien gañian.

Bigarrena, Juramenturic ez eguitea alperric.

Irugarrena, domecac ta jaijac gordetia.

Laugarrena, gurasoai lotzia gordetia.

Bostgarrena, ez iñor iltia.

Seigarrena, araguizco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez ostutia.

Zortzigarrena, eguin eztaben gauzaric iñori ez ezartia, ta ez guzurric essatia.

Bederatzigarrena, lagunaren emazteric, edo senarric ez gura izatia.

Amargarrena, lagunaren ondasun bide bagacoric ez gura izatia.

Amar aguindu onéec bitan dagoz sarturic; Jangoicua maite izatian gauza guztiac baño gueijago, ta laguna edo progimua gueure buruba leguez. Amen.

ARTICULU FEDECUAC.

*Articulu Fedecuac dirá amalau, lenengo zazpirac dagocaz Jangoicotasunari: ta beste zazpirac Jesucristo gure Jaun Jangoico ta guizon egujazcuaren Guizatasun Santubari.*



*Jangoicotasunari dagocasanac dirá onec.*

Lenengua, sinistu Jangoico bacar guztia daijan bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aita.

Irugarrena, sinistu dala Semia.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santuba.

Bostgarrena, sinistu dala gauza guztien eguillia.

Seigarrena, sinistu dala Salvadoria.

Zazpigarrena, sinistu dala gloria emolia.

*Guizatasunari dagocasanac dirá onec.*

Lenengua, sinistu Jesucristo gure Jauna guizona zanez sortuba izan zala Es-

piritu-Santuba ganic.

Bigarrena, sinistu jaijo zala Marija Virginiaganic, gueldituten zala doncella, jaijo baño lenago, jaijotzan, ta jaijo esquero.

Irugarrena, sinistu artu citubala eriotzia, ta neque andijac gu pecatarijoc salvetiarren.

Laugarrena, sinistu jatzi zala infernubetará bere etorrera Santubaren zain egozan Guraso Santuben Arimac ateretara.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunian viztu zala illén arteric.

Seigarrena, sinistu igoebala Cerubetará, an daguala jarriric Aita Jangoico guztia daijanaren alde escumatati.

Zazpigarrena, sinistu etorrico dala vici ta illac, juzguetará, onai emoteco glorija, bere Aguindu santubac gorde citubelaco, ta dongai be-



tico infernuba gorde etzitubelaco.

DOCTRINIA ADIERAZOTECO

*itaune ta eranzuerac.*

*Itandutendot.* Cristinauba zara?

*Eranzutendot.* Bai, Jangoicuaren graciaz.

I. Nundi jatorzu Cristinaubaren icen ori?

E. Jesucristo gure Jaunagandic.

I. Cer essan gura dau Cristinaubac?

E. Cristoren guizona.

I. Cer adietan dozu Cristoren Guizonaz?

E. Jesu-Cristoren fede, edo sinistia dabena, cein artueban Batiuan, eta bera servietaco esquiniric daguana.

I. Cein dá Cristinaubaren señalia?

E. Curutze Santia.

I. Çer gaiti?

E. Cerren dan Cristo curutzian josijaren irudija, ceñetan erosi guenduzan.

I. Ceimbat modutan eguiten dau cristinaubac señale ori?

E. Modu bitan.

I. Ceinzuc dirá?

E. Ceñatutia, ta Aitiaren eguitia.

I. Cer dá ceñatutia?

E. Escumaco erpurubaz iru curutze eguitia.

Lenengua becoquijan, bigarrena auan, ta irugarrena bularrian Jangoicuaz verba eguiten dabela.

I. Eracutzi celan?

E. Curutze Santiaren señalia gaiti, gueure arerijuetaric libradu gaizuz gueure Jauna ta Jangoicua.

I. Cegaiti ceñatuten zará becoquijan?

E. Jangoicuac librau gaizan pensamentu gaistuetati.

I. Cegaitic auan?

E. Jangoicuac librau gaizan verba gaistuetatic.



I. Cegaiti bularriau?

E. Jangoicuac librau gaizan eguite, ta gurari gaistuetatic.

I. Cer dá Aitiaren eguitia?

E. Escumaco atz bijacaz Curutze bat eguitia becoquitic bularrera, ta ezquerreco sorbaldaric escumacora Trinidade guztiz santiari gagocazala.

I. Eracutzi celan?

E. Aitiaren, ta Semiaren ta Espiritu-Santubaren icenian. Amen.

I. Nos eguin biar dogu Curutze ori?

E. Eguite onen bat asten dogun guztian, premiña, tentaciñoe, edo bidaune donguetan arquietan gariania: Batez bere oeti jaguienian, echeti urtaieran, Eleiran sartzeian, jatorduban, ta oera etzieran.

I. Cegaiti ain sarri?

E. Cerren beti, ta lecu guztietan darraicuzan gueure arerijuac goitu, ta galtzeco asmoz.

I. Ce arerijo dirá orrec?

E. Demoninua, Munduba, eta Araguija.

I. Beraz arerijo orrec goituteco curutziac indarra dau?

E. Bai Jauna.

I. Nundic jatorco curutziari indar ori?

E. Cristoc bere erijotziaz anche goitu citubalaco.

I. Curutzia adoretan dozunian, celan esaten dozu?

E. Adoretan ta bedeinquetan zaituguz Cristo, cerren curutze Santubagan librau cenduban Munduba.

## CRISTINAUBAC
### JAQUIN BIARDITUBANAG.

Icusi dogu Cristinaubа zariana, ala icenian nola señalian: esan eguidazu orain.



I Ceimbat gauza jaquin biarditu cristinaubac adinera, edo ezaguerara elduten danian?

E. Lau gauza.

I. Ceinzuc dirá?

E. Cer sinistu, cer escatu, cer eguin ta cer artu biar daben jaquitia.

I. Celan jaquingo dau cer sinistu biar daben?

E. Jaquinaz Credua edo articulu Fedecuac.

I. Celan jaquingo dau cer escatu biar daben?

E. Jaquinaz Aita guria ta Elisaco beste oracinoiac.

I. Celan jaquingo dau cer eguin biar daben?

E. Jaquinaz Jangoicuaren legueco, ta Elisaco aguindu edo Mandamentubac, eta obra Misericordiazcuac.

I. Celan jaquingo dau cer artu biar daben?

E. Jaquinaz Elisaco Sacramentubac,

Universidad de Deusto Biblioteca

*ceñetan adierazoten dirian Credua, ta Fedeco Articulubac.*

I. Esaizu noc esan eban Credua?

E. Apostolubac.

I Cetaraco?

E. Guri fedeco gauzac iracasteco.

I. Eta zuc cetaraco esaten dozu?

E. Cristinaubac daučagun Fedia, edo sinistutia autortuteco.

I. Cer da Fedia?

E. Icusi eztoguna sinistutia.

I. Icusi cenduban jaijoten Jesucristo?

E. Ez Jauna.

I. Icusi cenduban illten edo cerura igoten?

E. Ez Jauna.



I. Sinistuten dozu?

E. Bai Jauna.

I. Cegaitic sinistuten dozu?

E. Cerren Jangoicuac alan aguertu deutzan Elisa Ama Santiari, ta onec alan daracuscun.

I. Ce gauza dirá cristinauba leguez daucazuzanac, ta sinistuten ditubanac?

E. Erromaco Elisa Ama Santiac daucazanac, ta sinistuten ditubanac.

I. Ta cerzuc dirá orrec?

E. Articulu Fedecuac creduan dagozan leguez.

I. Cer dirá Articulu Fedecuac?

E. Dirá gueure Fedeco Misterijo, edo sinisgueiric andijenac.

I. Cetaraco dirá Fedeco Articulubac?

E. Gueure Jangoicuaren, ta Jesucristo gueure Erredentoriaren barri, ta eza-

guera arguijagua emoteco.

I. Ceinda gure Jangoicua?

E. Dá esan, ta asmau aldeitequian izateric andi, ta miragarrijena: Jaun bat amai bagaric ona, guztia daijana, jaquituna, zucena, gauza guztien asiera, ta azquena.

I. Cer dá Trinidade chito Santia?

E. Da Jangoicua bera, Aita, Semia ta Espiritu-Santuba; iru persona distinta edo banac, ta Jangoico eguijazco bacar bat.

I. Aita Jangoicua dá?

E. Bai Jauna.

I. Semia Jangoicua dá?

E. Bai Jauna.

I. Espiritu Santuba Jangoicua dá?

E. Bai Jauna.

I. Iru Jangoico dira?

E. Ez Jauna ezpada Jangoico eguijazco bacar bat.

I. Aita Semia dá?

E. Ez Jauna.



I. Espiritu Santuba Aita, edo Semia dá?

E. Ez Jauna.

I. Cegaiti?

E. Cerren iru Personac bana dirian, izan arren Jangoico eguiazco bacar bat.

I. Jangoicua celan dá guztia daja?

E. Cerren bere naijaz bacarric edocein gauza eguiten daben.

I. Celan dá eguilla, edo Criadoria?

E. Cerren atera cituban ezceberecetic gauza guztiac.

I. Celan dá Salvadoria?

E. Cerren pecatubac parcatu, ta emoten daben gracia.

I. Celan dá glorija emolia?

E. Cerren beren gracijan ditubenai Gloria emoten deutzén.

I. Jangoicuac badau gorputz irudiric guc leguez?

E. Jangoicua dan aldez ez, cerren dau Espiritu utz

Universidad de Deusto Biblioteca



garbija baña bai Guizona dan aldez.

I. Jangoicozco iru personetaric cein eguin zan Guizon?

E. Bigarrena cein dan Semia.

I. Aita eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu-Santuba eguin zan guizon?

E. Ez Jauna.

I. Cein bada?

E. Bacarric Semia, ceñi guizon eguin da derichon Jesucristo.

I. Orrela cein dá Jesucristo?

E. Da Jangoico vicijaren Semia, gu erostiarren, eta guri vici moduba eracustearren guizon eguin zana.

I. Cer essan nai dau Jesusen icenac?

E. Salvadoria.

I. Cetati Salvadu guenduzan?



E. Gueure pecatubetati, ta diabruaren mendeti.

I. Cer essan gura dau Cristoc?

E. Ungiduba.

I. Cegaz Ungiduba izan zan?

E. Espiritu Santubaren Gracijaz ta Doez.

I. Jesucristo Gure Jauna celan sortu, ta jaijozan Amac doncella izatia galdu bagaric?

E. Jangoicuaren eguiera miragarrisco, ta gueurez gañeticuaz.

I. Eta bere ama beti izan zan doncella ta garbi?

E. Bai Jauna beti.

I. Cegaiti Curutzean ill gura izan eban Cristoc?

E. Libretiarren gu pecatuti, ta erijotzaric.

I. Jesucristo ill, ta jatzizan infernubaren icenaz cer adietan dozu?

E. Ez condenauben to-

quija, ezpada Arima onac egozan lecuba, Limboa dirichona.

I. Celan jatzizan?

E. Arima Jangoicotasunaz batubaz.

I. Ta bere gorputza celan gueratu zan?

E. Jangoicotazunaz beraz baturic.

I. Celan viztu zan irugarren egunian?

E. Barriro batuten ciriala bere gorputz, ta arima glorijaz betia ostera iños ez ilteco.

I. Celan igoeban Cerubetará?

E. Berez.

I. Aita Jangoicuaren escumatati jarri; ta egotiac cer esan gura dau?

E. Cristoc Jangoicua danez Aitac duin glorija daucala ta guizona danez beste edoceinec baño gueijago.

I. Nos etorrico da vicijac ta illac juzguetara?



E. Mundubaren güenian.

I. Ta orduban viztuco dirá ill guztiac?

E. Bai Jauna, euren gorputz, ta arima leen citubénacaz.

I. Santuben alcarren eguite onetan parte izatia essaten dozunian, cer sinistuten dozu?

E. Cristinau fielac parte dauquela bata bestiaren eguite onetan arimaco ondasunetan, gorputz baten zaitijac izanic, cein dan Elisia.

I. Cer dá Elisia?

E. Dá cristinau fiel guztiac batera arturic eguiten daben gorputza, ceinen buruba dan Aita Santuba.

I. Cein dá Aita Santuba?

E. Dá Erromaco Sacerdote nausi lurrian Cristoren ordecua, ceiñi obeidutera gagozan guztioc obligauric.

I. Credo, ta articulubez

gañeti, besteric sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, Escritura Santetan daguana, ta Jangoicuac Elisa Santiari aguertu deutzan guztia.

I. Ce gauza dirá orrec?

E. Ez niri itandu, nassalaco jaquiturija bagacua, baditu Elisa Ama Santiac eranzuten daquijenac.

*Maes.* Ondo dinozu iracaslai jagocue, ta ez zuri fedeco gauzetan banaca ta astiró contu emotia, asco da zuretzat, Articulubac Creduan dagozan leguez sinistu ta jaquitia.

DOCTRINIAREN BIGARREN PARTIA.

*Nun adierazoten dan cer escatu biar dan. Icusi dogu celan daquizun sinistu biardana, cein dan lenengua, gatozan bigarrenera, cein dan escatu biar dana, Essan eguidazu.*



I. Noc esaeban Aita guria?

E. Jesucristoc.

I. Cetaraco?

E. Guri escatuten iracasteco.

I. Cer dá escatutia, edo erregututia?

E. Da Jangoicuagana vijotza jaso, ta mesediac escatutia.

I. Aita guria essaten dozunian, nogaz verba eguiten dozu?

E. Gueure Jaun, eta Jangoicuagaz.

I. Nun dago gure Jangoicua?

E. Lecu guztietan, batez bere Ceruban ta Altaraco Sacramentu chito Santuban.

I. Cein dá oracinoe guztien artian onéua?

E. Aita guria.

I. Cergaiti?

E. Cerren Jesucristoc

Universidad de Deusto Biblioteca



bere aoz essana dan Apostoluben ezcabidez.

I. Cegaitic gueijago?

E. Cerren daucazan zazpi escabide caridadetic datozanac.

I. Ceinzuc dirá?

E. Lenengua, santificadu bedi zure icena.

I. Cer escatuten dozu escabide orretan?

E. Ezagutuba, ta honraduba izan dedila Jangoicuaren icena mundu guztian.

I. Cein dá bigarrena?

E. Betor gugana ceure erreinuba.

I. Cer escatuten dozu escabide orretan?

E. Aguintau daijala Jangoicuac gure arimetan emen lurrian gracijaz ta guero digula glorija.

I. Cein dá irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatia nolan ceruban alan lurrian.



I Cer escatuten dozu escabide orretan?

E. Eguin daigula Jangoicuaren borondatia lurrian gagozanoc, ceruban zorijonecoac eguiten daben leguez.

I. Cein dá laugarrena?

E. Egunian eguniango gueure oguija emon eiguzu.

I. Cer escatuten duzu escabide orretan?

E. Gorputzari dagocan janarija emon deigula ta, arimiarentzat, gracija, ta Sacramentubac.

I. Cein dá bostgarrena?

E. Parcatu eiguzuz gueure zorrac, guc gueure zordunai parquetan deutzeguzan leguez.

I. Cer escatuten dozu escabide orretan?

E Parcatu deiguzala Jangoicuac gueure pecatubac, guc gueure gaisquillai parquetan deutzegun leguez.

I. Cein dá seigarrena?

Universidad de Deusto Biblioteca



E. Ichi ez eguizu tentacinoyan jausten.

I. Cer escatuten dozu escabide orretan?

E. Jangoicuac ichi ez deigula, diabrubac jaussi eraguiteco dacarguzan pensamentu cital ta tentacinoetan jausten, ta ez lecuric emoten.

I. Cein dá zazpigarrena?

E. Baña librau gaizuz gacherric.

I. Cer escatuten dozu escabide orretan?

E. Librau gaizala Jangoicuac arimaco, ta gorputzeco gach guztietati.

I. Cegaiti essan dozu asieran Aita gueuria cerubetan zagozana?

E. Jasoteco vijotza Jangoicuagana, ta escatuteco mesediac humildadez, ta uste betiaz

I. Azquenian essaten dozun verbiac *Amen* cer essan gura dau?



E. Alan izan dedilla.

I. Ceintzuc dirá Ama Virginiari erregututeco oracinoerie onenac?

E. Ave Marija ta Salvïa.

I. Noc essan eban Ave-Marija?

E. Aingueru S. Gabrielec Ama Virginiari barri onac emotera etorri zanian.

I. Noc essaeban Salvia?

E. Elisa Santiac dauca beretuta.

I. Cetaraco?

E. Ama Virginiari mesediac escatuteco.

I. Ave-Marija edo Salvia esaten dozunian norizagocaz?

E. Gueure Ama Virgina chito onari.

I. Cein dá Ama Virgina ori?

E. Dá virtutez beterico Andra, edo Señora bat, Jangoicuaren Ama ta Ceruban daguana.

I. Ta altaran daguana nor dá?

E. Ceruban daguanaren irudi bat.

I. Cetaraco dagó?

E. Guc icusita, gomuta izan daigun Ceruban daguana, ta bere iduri, edo imaginia dalaco erreverencijau daigun.

*Maes.* Bada beste Santuben irudi, ta imaginai bere alan eguin biar deutzezu.

I. Ainguerubai, ta Santubai bere erregutu biar deutzegu?

E. Bai Jauna, gueure bitartecuai leguez.

I. Cer dirá Ainguerubac?

E. Dirá Jangoicua dacusen espiritu zorijoneco batzuc.

I. Cetaraco eguin cituban Jangoicuac?

E. Beti bera alabadu, ta bedeincatu daijen.

I. Cetaraco gueijago?

E. Bere servitzarijac leguez Elisa zuzendu, ta guizonac zainduteco.



I. Beraz zuc bere badozu Ainguerú jaolia?

E. Bai baucat, ta guizon bacochac dauca beria.

*Maes.* Bada devocinoe andija artu eijozu ta egunoro zucendu zaite beregana.

## *IRUGARREN PARTIA, ceñetan adierazoten dan cer eguin biar dan.*

Icusi dogu, cer sinistu, ta cer escatu biardan: dacuscun orain celan daquizun cer eguin biar dan.

I. Essaisu: cein da Jangoicuaren legueco lenengo aguinduba?

E. Jangoicua maite izatia gauza guztien gañian.

I. Noc maite dau Jangoicua?

E. Bere aguindubac gordetan dituban ac.

I. Cer dá Jangoicua mai-

ta izatia gauza guztien ganian.?

E. Gauza guztiac galdu gurago izatia bera ofendidu baño.

I. Cetara gueijago obliguetan gaitu aguindu onec?

E. Gorputzeco, ta arimaco aleguin guztiaz bera bacarric adoretara, beragan sinistu, ta esperetan dogula, fede bategaz.

I. Noc onetan utz eguin darua?

E. Jangoico guzurrezcuac adoradu, ta sinistuten ditubanac.

I. Noc gueijago?

E. Sorguinquerija ta aztuben barri emote, etorquizun amesezcuay, eta onelaco bide bagaco gauzai sinistia emoten deutzenac.

I. Bigarren aguinduba cein dá?

E. Ez juramenturic eguitia alperric.



I. Nortzuc alperric juramentu eguiten dabe?

E. Eguija baga, premina baga, edo gauza donguia eguiteco eguiten dabenac.

I. Eta eceri eztaocala, edo alperric criaturac gaiti juramentu eguitia pecatu dá?

E. Bai Jauna, cerren euretan eguiten jacon Jangoico euren eguiliari.

I. Irugarrena cein dá?

E. Domeca ta Jaijac gordetia.

I. Noc gordetan ditu Jaijac?

E. Meza osobac enzun, eta premina baga biarric eguiten estabenac.

I. Cein dá laugarrena?

E. Gurasuai lotzia gordetia.

I. Nortzuc gordetan dabé aguindu au?

E. Gurassuen aguindupian dagozanac, ta lagunduten deutzenac.

Universidad de Deusto Biblioteca



I. Nortzuc besteric adietan dirá gurassuen icenez?

E. Nagusijaguac edadian, honran, ta aguintarintzan.

I. Cein dá Bostgarrena?

E. Inor ez iltia.

I. Cer aguinduten jacu orretan.

E. Ezteijogula inori gachic eguin, ta ez opa, ez verbaz, ez obraz ez gogoz.

I. Cein dá seigarrena?

E. Araguizco pecaturic ez eguitia.

I. Cer aguinduten jacu orretan?

E. Izan gaitiala garbijac gogo, ta verba, eguite, ta gurarijetan.

I. Cein dá zazpigarrena?

E. Ez ostutia.

I. Cer aguinduten jacu orretan?

E. Ezteijogula inori quendu, ez euqui, ez estari, ez gura izan jaubiac nai estabela.



I. Cein dá zortzigarrena?

E. Inori eguin eztabenic ez ezartia, ta ez guzurric esatia.

I. Cer aguinduten jacu orretan?

E. Eztaigula inorgaiti juzgau dongaric arin eguin, ta ez essan inoren faltaric, ta ez enzun gogoz bestee esaten ditubanac, ta enzunac ito daiguzala gueure barrubau.

I. Noc austen dau mandamentu, edo aguindu au?

E. Errazac andi baga juzgau deunguia eguiten dabenac, dongaro esaca dabiltzanac, inoren gauza isilecua aguertu ta guzurra esaten dabenac.

I. Cer eragozten jacu bederatzigarren, ta amargarren Mandamentu, edo aguindubetan?

E. Araguizco atzeguiñen ta inoren ondasunen gurari bide bagacuac.

Universidad de ... Biblioteca

*ELISA SANTIAREN*
*Mandamentu edo aguindubac dirá bost.*

Lenengua, Mesa osua enzutia, Jay ta Domequetan.

Bigarrena, edola bere urtian bein confesetia, edo lenago erijotzaco peligruban badago edo comulgau biar badau.

Irugarrena, Pazco garizumacuetan comulguetia bere parroquian.

Laugarrena, Barau eguitia Ama Elisa Santiac aguinduten dabenian.

Bostgarrena, Amarrenac ta primicijac zucen paguetia.

I. Cetaraco dirá Mandamentu onec?

E. Jangoicuaren leguecuac obeto gordetaco.

X *MISERICORDIAZCO obra, edo erruquizco eguinac dirá amalau, Zazpi*

9



*arimiari, ta beste zazpi gorputzari dagocazanac.*

*Arimiari dagocazanac dirá onec.*

Lenengua, estaquijanari iracastia.

Bigarrena, biar dabenari conseju ona emotia.

Irugarrena, utz eguiten dabena zucendutia.

Laugarrena, gach eguina parcatutia.

Bostgarrena, triste daguana postutia.

Seigarrena, lagunaren falta, ta argaltasuna pacienciaz iragotia.

Zazpigarrena, vicijac, eta illac gaiti Jangoicuari erregututia.

*Gorputzari dagocazanac dirá onec.*

Lenengua, gaisuac visitau edo icustia.

Universidad de Deusto Biblioteca



Bigarrena, gose danari jaten emotia.

Irugarrena, egarri danari edaten emotia.

Laugarrena, cautibuac ascatu eraguitia.

Bostgarrena, bilosac jaztia.

Seigarrena, erromesai ostatua emotia.

Zazpigarrena, illay lurra emotia.

I. Cegaiti deriche erruquizcoac?

E. Cerren eztirian zor juzticiaz.

I. Nos dirá bada zor pecatubaren beian?

E. Guizon aitubén erechijan premiña edo estualdi andija danian.

*LAUGARREN PARTIA ceñetan adierazoten dirian artu biar dirian Sacramentubac.*

Icusi dogu celan daquizun



cer sinistu, cer escatu, ta cer eguin biar dogun: Dacuscun orain cer artu biar dogun.

*ELISA AMA SANTIAREN SACRAMENTUBA dira zazpi Lenengo bostac dira nai, ta nai ezcuac izatez, edo borondatez, ceinzuc baga salvau ecin leite, isten baditu naguitasunez, edo ecetan ez euquiz. Beste bijac dira borondatezcuac.*

Lenengua, Bautismua.
Bigarrena, Confirmacinoia.
Irugarrena, Confesinoia.
Laugarrena, Comuninoia.
Bostgarrena, Oliacinoia.
Seigarrena, Ordia.
Zazpigarrena, Ezconcia.

I. Cer gauza dirá Sacramentubac?

E. Dira Jesucristoc ichirico señale aguiri batzuc, euren vitartez emoteco guri gracija ta virtutiac.

I. Cer dá gracija?

E. Da izate Jangoicozco bat ceiñec eguiten daben Guizona Jangoicuaren seme, ta ceruco herederu, edo Jaubeguei.

I. Cer virtute emon darue Sacramentubac gracijaz batera?

E. Iru enzunenac beste guztien artian, ta dirá virtute Jangoicoricuac derichenac.

I. Ceintzuc dirá?

E. Fedia, Esperancia, ta Caridadia.

I. Cer dá Fedia?

E. Estacuzcuna sinistutia; Jangoicuac alan aguertu dabelaco.

I. Cer dá Esperancia?

E. Icharotia glorija Jangoicuaren laguntazuna, ta gueure ondo eguinac diriala vitarte.

I. Cer dá Caridadia?

E. Maite izatia Jangoicua



gauza guztien ganian, ta gueure lagun, ta proximuac gueure buruban leguez eguiten deutzegula eurac gueuri eguitia, gura gueuduquiana.

I. Batioco Sacramentuba cetaraco dá?

E. Quentzeco pecatu jatorrizcua, ta batiatuten danagan arquituten dan edoceimbere.

I. Cer dá pecatu jatorrizcua, edo originala?

E. Da jajotzan dacarguna, cein jatorcun gueure lenengo gurasoetati:

I. Cetaraco dá confirmacinoeco Sacramentuba?

E. Batiuan artu guendu-ban fedia sendotuteco.

I. Cetaco Confesinoeco Sacramentuba.

E. Batiatu ezquero eguindaco pecatubac parcatuteco.

I. Ce pecatu dira orrec?

E. Mortalac eta venialac.

Universidad de Deusto Biblioteca



I. Cer dá pecatu mortala?

E. Da essatia, eguitia, edo gura izatia cerbait Jangoicuaren leguiac eragoicija gauza andi, edo astunian.

I. Cegaiti dericho mortala?

E. Ilten dabelaco eguiten dabenaren arimia.

I. Cembat gauza lagundu biar dau confesinoia pecatu mortala quentzeco?

E. Bost gauza.

I Ceintzuc dirá?

E. Lenengua aleguiñaz pecatubaç gogora ecartia.

Bigarrena artzeia damu vici bat Jangoicua ofendidu dabelaco.

Irugarrena, euquitia asmo sendo bat pecaturic gueijago ez eguiteco, ta alde eguteco pecaturaco bide ur ta ocasinoetatic.

Laugarrena, autortutia pecatubac ossoro confessoriari, jaquinac, jaquinaç leguez, dudazcuac, dudazcuac leguez gueitu ez guichitu bagaric.



Bostgarrena, confessoriac emoten daben penitencija cumplietia.

I. Celan eguin biar dá lenengo gaucia, cein dan pecatubac gogora ecartia?

E. Ardura andijaz, ciur beguiraturic gueure viciziari.

I. Celan ecarrico dogu damuba?

E. Jangoicuari escatubaz, bada bere emocaija.

I. Cembat modutacua izan deite damu ori?

E. Modu bitacua.

I Celan deriche?

E. Amodijozcua, ta Bildurrezcua.

I Cer dá amodijozco damuba?

E. Dá artzeya damu vici bat Jangoico guztiz maite dabena ofendidu dabelaco, izanic aiñ ona.

Universidad de Deusto Biblioteca



I. Cer dá bildurrezco damuba?

E. Da euquitia damu vici bat Jangoicua ofendidu dabelaco, cerren Jangoicuac infernura bota leijan, edo ceruba galdu dabelaco, edo bere arimia pecatubaz guztiz ezaindu dalaco.

I. Eta biar dau batec pecatu mortalian jaussi ezquero, beriala confesau?

E. Ondo litzate, baña ez da preminazcua.

I. Cer eguin biar dau bada?

E. Artu vijotzeco damu andi bat pecatu eguin dabelaco, euqui onduteco gogo sendo bat, ta confesau Ama Elisa Santiac aguinduten dabenian.

I. Pecatu veniala edo ariña ce gausa dá?

E. Pecatu mortaleraco prestaera bat.

I. Cegaiti dericho veniala?

E. Cerren guizona erresto jausten dan, ta eresto parcatuten jacan.



I. Cembat gauzaz parcatuten dirá?

E. Bederatzigaz.

9

I. Zeintzuc dirá?

E. Lenengua, Meza enzutiaz.

Bigarrena, comulguetiaz.

Irugarrena, ni pecatarija, essanaz.

Laugarrena, Obispuaren bedeincacinoyaz.

Bostgarrena, ur bedeincatuba artubaz.

Seigarrena, Ogui bedeincatuba janaz.

Zazpigarrena, Aita guria essanaz.

Zortzigarrena, Sermoia enzunaz.

Bederatzigarrena, Jangoicuari parca esque daocala, bularra juaz.

I. ComuninoccoSacramentu guztiz Santuan cer artuten dozu?

Universidad de Deusto Biblioteca



E. Jesucristo Jangoico ta Guizon eguijazco Sacramentu altaracuan eguijaz daguana.

I. Oliacinoeco Sacramentuba cetaco dá?

E. Iru gauzataraco.

Lenengo lenagoco vicitza gaistoco pecatuben errastu, ta emparaubac quenduteco.

Bigarrena, sendotuteco arimia diabrubaren asmo, ta tentacinoien contra.

Irugarrena, ossasuna gorputzari emoteco arimaco caltian izango ezpada.

I. Cetaco dá Ordia?

E. Ordenduteco, ta consagretaco Abade, edo Elis-Guizonac.

I. Cetaco dá Ezcontzaco Sacramentuba?

E. Ezconduteco, ta emoteco gracija ezcondubai alcarren artian baquian vicidi-tian ta seiñac ceruraco aci daijezan.



*PECATU CAPITALAC edo bestén sustraijac dira zazpi.*

Lenengua, Andiuste, edo Soverbija.

Bigarrena, cequentasuna edo Abaricija.

Irugarrena, loiquerija edo Luxurija.

Laugarrena, asserracuntzia edo Iria.

Bostgarrena, Gulerija.

Seigarrena, Ondamua edo embidija.

Zazpigarrena, Naguitasuna.

I. Cergaiti deituten dirá capitalac pecatu onéc, izanic gueijenian mortalac?

E. Cerren euretati buruti leguez jaijoten dirian bestiac, ta cerren dirian beste pecatu guztien sustraijac. Ez jatorque barriz ain ondo mortalen icena, bada asco-

Universidad de Deusto Biblioteca



tan venialac baño eztira.

I. Nos dirá mortalac?

E. Caridadia aussi, edo Jangoicuaren, edo lagunaren contra dirianian.

I. Nos dirá orren contra?

E. Jangoicuaren leguecó edo Elisaco mandamentu, edo aguinduren bat austen danian gauza andijan.

I. Cer dá soverbija, edo Andiustia?

E. Gurari oquer, edo erabaguia bestiac baño gueijago izateco.

I. Cer dá cequentasuna edo Avaricija?

E. Da ondasunen gurari gueijegui bat.

I. Cer dá Loiquerija, edo Luxurija?

E. Gorputzeco atzeguin loijen gurari erabagaco bat.

I. Cer dá Asserracuntzia, edo Iria?

E. Venguetaco gurari oquer bat.



I. Cer dá Gulerija?

E. Jateco ta edateco gurari gueijegui bat.

I. Cer dá Ondamuba, edo Imbidija?

E. Besten ona icusi ecina.

I. Cer dá Naguitasuna?

E. Gauza oneracó jausitasun, edo atzerapena.

*Zazpi vicijo onen contra dirá zazpi virtute.*

Andiuste, edo Soberbijaren contra humildadia.

Avaricija, edo cequentasunaren contra prestutasuna.

Loiquerijaren contra garvitasuna.

Asserracuntziaren contra, onez iragotia edo paciencija.

Gulerijaren contra, jan edanian beguiratua izatia.

Imbidijaren contra, amodijua, ta caridadia.

Naguitasunaren contra, prestutasuna.

Universidad de Deusto Biblioteca



IGUES BIAR DEUTZEGUN ARIMACO arerijuac dirá iru.

Lenengua Munduba,
Bigarrena, Demoniua.
Irugarrena, Araguija.

I. Celan iguesco dogu munduba ganic?

E. Bere andiuste ta arrotasunai jaramonic ezaz.

I. Demoniua ganic celan igues eguingo da?

E. Humildadiaz ta Jangoicuari erregutubaz.

I. Celan igues eguiten dá araguijaganic?

E. Gorputza ecijaz, azpiratubaz, luari ta janari cerbait quenduta. Pelligruzco ibillerac eragoszita. Au da arerijoric andijena, cerren ecin alderatu guinajan gueuganic munduba, ta Demoniua bai.



*Viriute Teologalac, edo Jangoicua ganazcuac dirn iru.*

Lenengua, Fedia.
Bigarrena, Esperancia.
Irugarrena, Caridadia.

*Virtute Cardinalac dirá lau.*

Lenengua, Prudencija.
Bigarrena, ciurtasuna, edo Justicija.
Irugarrena, Sendotasuna.
Laugarrena, Templancia, edo beguiratua izatia.

*Gorputzeco Cenzunac dirá bost.*

Lenengua, beguijacaz icustia.
Bigarrena, Belarrijacaz entzutia.
Irugarrena, Auaz gusto artzeya.
Laugarrena, Surraz usain eguitia.

Bostgarrena, Escubacaz ucututia.

I. Cenzunac, eta osteruntzeco gorputzeco satijac cetaraco emon euscuzan Jangoicuac?.

E. Guztiacaz, ta gauza guztietan bera servietaco.

*Arimaco Almenac edo Potencijac dirá iru.*

Memorija, edo gomutia Adina edo Entendimentuba ta Borondatia.

I. Cetaraco emon euscun Jangoicuac Gomutia, edo Memorija?

E. Gomuta guendizan beraz ta bere messede guztiacaz.

I. Cetaraco emon euscun Entendimentuba?

E. Ezagututeco gueure Jauna, ta goguan erabilteco.

I. Cetaraco emon euscun Borondatia?



E. Bera maite izateco, onic andijena leguez gauza guztien ganian eta bera gaiti gueure lagun, edo proximuac gueure burubac leguez.

*Espiritu Santubaren Doyac dira zazpi.*

Lenengua, Jaquiturijaren Doya

Bigarrena, Adinaren Doya.

Irugarrena, Consejubaren Doya.

Laugarrena, Ciencija, edo aitutiaren Doya.

Bostgarrena, Sendotasunaren Doya.

Seigarrena, Piedade, edo erruquijaren Doya.

Zazpigarrena, Jangoicuaren bildurraren Doya.

*Espiritu Santubaren Frutubac dirá amabi.*

Lenengua, Caridadia.

Bigarrena, Baquia.

Irugarrena, Bijotzeco anditasuna.

Laugarrena, Benignidade, edo erruquitasuna.

Bostgarrena, Fedia.

Seigarrena, Continencija.

Zazpigarrena, Espirituco atzeguin, edo Poza.

Zortzigarrena, Paciencija, edo eruapena.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Biguntasuna.

Amaicagarrena, Modestija, edo modu ona.

Amabigarrena, Garbitasuna, edo castidadia.

*Zorijontazunac dirá zortzi.*

1. Zorijonecuac, bijotzet pobre, edo preminadun. cerren eurena dan cerco erreinuba.
2. Zorijonecuac manso, edo bigunac, cerren euren mendian euco daben lurra.



3. Zorijonecuac, negar eguiten dabenac, cerren eurac izango dirian poztubac.
4. Zorijonecuac, ciurtasun, edo justicijaren gose egarri dirianac cerren asiac izango dirian.
5. Zorijonecuac, erruquiorrac, cerren aurquitueo daben misericordija, edo erruquija.
6. Zorijonecuac, bijotz garbicuac, cerren icusico daben Jangoicua.
7. Zorijonecuac, baquetzubac, cerren Jangoicuaren semén icena emongo deutzen.
8. Zorijonecuac, ciurtasun, edo Justicija gaiti gorrotau, ta persecucinoia daruenac, cerren eurena izango dan cerubetaco erreinuba.

Universidad de Deusto Biblioteca



I. Certzuc essan ditugu orain?

E. Zortzi Bienabenturanza, edo Zoriontasunac.

I. Cer dirá orrec?

E. Espiritu Santubaren virtute, ta doyen eguitecoric onenac.

I. Nortzuc dirá bijotzetic pobre, edo preminadunac?

E. Lurreco andiuste, ta ondasunen gurariric eztauquenac.

I. Nortzuc dira Manso edo bigunac?

E. Asserreric eztauquenac, esta bere apurric.

I. Celan mendetuco dabe lurra?

E. Euren buruben jaube izanaz.

I. Nortzuc dirá negartijac?

E. Atzeguin donga eztirianac bere isten ditubenac.

I. Nortzuc dirá ciurtasunaren, edo justicijaren gose egarri dirianac?



E. Aleguiñaz ecetan bere utzic eguitia nay eleuquenac.

I. Nortzuc dirá erruquiorrac?

E. Inori bere on baño eguin gura ezteutzenac.

I. Nortzuc dirá bijotz garbicuac?

E. Euren barruco gurari dongac goituten ditubenac.

I. Nortzuc dirá baquetzubac?

E. Euren burubai, ta bestenai baquia emon daruacuenac

I. Nortzuc dirá ciur dabilzalaco gorrotaubac?

E. Sendo, ta gogor dagozanac gausa on guztietan munducuen gach erechijan egon arren.

I. Cegaiti emoten deutzezu oney Zorijontazunen icena?

E. Cerren euretan daguan lurrian zorijoneco izatia, ta cerubaren esperanza benetacua.

Universidad de Deusto Biblioteca



*Maes.* Jangoicuac ara eruan gaiquezala guztioc. Amen.

## *Ni pecatarija.*

Ni pecatarija confessetan nachaco Jangoico guztia daijanari, Andra Marija Virgina zorijonecuari, San Miguel Ainguerubari, San Juan Baptistari, Apostolu Santu San Pedro ta San Pablori, ta ostian Ceruban dirian Santu guztiai, eta zuri, neure Arimaco Aita, eguin dodala pecatu, goguaz, verbiaz, obriaz neure erruz, neure erruz, neure erru andiz: Orregaiti escatuten deutzat Andra Marija Virgina Zorijonecuari, San Miguel Ainguerubari, San Juan Baptistari, Apostolu Santu San Pedrori, ta San Pablori, ta ostian Ceruban dirian Santu guztiai, zuri neure arimaco Aita erre-



gutu deijozula ni gaiti gueure Jaun eta Jangoicuari. A.

## *Neure Jesucristo Jauna.*

Neure Jesucristo Jauna, Jangoico, ta Guizon eguijazcua, neure Eguillea, ta Erredentoria, zariana zarialaco ta maite zaitudalaco gauza guztien ganian, damu dot Jauna, damu dot bijotz guztiric zu ofendiduba, gogo sendo bategaz ez gueijago pecaturic eguiteco, pecatuben bide guztietati alde eguiteco, neure pecatubac confesetaco, ta eguiteco emoten jatan penitencija, Opa dentzudaz Jauna neure vicitza, neque, ta eguite guztiac, neure pecatuben orderaco: uste dot sure ontasun, ta erruqui amai bagaan, parcatuco deustazula, ceure precioso odol Pasinoe, ta

erijotzia gaiti, ta emongo deustazula gracija vicitzia obatuteco, ta ceu servietan irauteco neure erijotzaco orduraño. Amen.

ENCARNACINOECO MISTERIJO TA altaraco *Sacramentubaren alzaduria edo esplicacinoya.*

I. Cetan dago Encarnacinoeco Misterijua?

E. Trinidadeco bigarren Personia, cein dan Semia, Guizon eguitian Ama Virginaren errai garbijetan, ez Guizonaren, ezpada Espiritu Santubaren virtutez doncellatasunaren calte baga.

I. Celan jazon zan?

E. Formau edo eguieban Gorputza Ama Virginiaren odol garbijaz: atera eban



Arimia ece-bere ecetic: Gorputz, ta arimia alcarregaz batu cituban: ta orra Guizatazuna; azquenic, bigarren Persona, edo Semiac artu cituban beragan Gorputz ta arima oneéc, ta gueratu zan Jangoico ta Guizon eguinic.

I. Iru Personac eguiebén obra andi au?

E. Bai Jauna, baña essatenda; Espiritu Santubaren virtutez izan zala, cerren Aitiari Poderia, ta Semiari Jaquiturija leguez, alan Espiritu Santubari ezarten jaco amodijozco misterijo au. Baña bacarric bigarren Personia gueratu zan Guizon eguinic

I. Cembat izate, edo Naturaleza arquituten dirá Jesucristo gan?

E. Bí, Guizona danez bata, ta bestia Jangoicua danez: ta bardin adimentu, ta borondate bi.

I. Cembat Persona?

Universidad de Deusto Biblioteca



E. Bat, ta au Jangoicua dan aldeti: cerren Persona bi balira, izango litzatez Cristo bi, ta Cristo bat baño ez ta.

I. Badau gomuta, edo Memorijaric?

E. Ez Jangoicua danez, cerren gauza guztiac daucaz aurrian, baña bai Guizona danez.

I. Cer dago Altaraco Sacramentu Santuban?

E. Jesucristo gure Jauna ceruban daguan leguez viciric, baña estalduta Ostiaren zuritasunaz.

I. Eta dago oguiric?

E. Ez, Sacerdotiac consagrau ezquero, ta bacarric dagoz ogui ichura, edo irudi utza.

I. Badago gorputza baño beste gauzaric?

E. Bai, an dago bere Arimia, Odola, Jangoicotasuna, ta Trinidadeco iru personac.

I. Cer dago Calizan?



E. Consagrau baño lenago ardaua ur puzca bategaz: baña consagrau ezquero jarten dá verben indarrez odola, ta celan odol au daguan viciric, dagoz an Gorputz ta arimia Jangoicotasunaz, ta onez gañeti Trinidadeco iru Personac: baña ecelan bere ardaoric ez ezpada ardauaren ichura, ta irudin utzac.

I. Ostia Santuba erdibitu ta apurtuten bada erdibituten ete dá Cristoren Gorputza?

E. Ez Jauna cerren dan apurric chicarrenian arquituten da osoz bere gorputza ta dago guztia guztian, ta guztia edocein apurretan.

I. Cetaraco dá Comunionoeco Sacramentuba?

E. Ondo prestau artuten dabenarentzat izan dedin arimaco jaquija, gracija, ta virtutiac gueituteco.

Universidad de Deusto
Biblioteca



I. Pecatu mortalian comulguetan danac artuten dau Jesucristo?

E. Bai Jauna baña bere caltian.

I. Ce calte etorri leite?

E. Azco baña jaquinenac dira gorputzeco gach, ta eriotzia, ta bijotzeco gogortasuna.

I. Cer dino San Pabloc dongaro comulguetan diriañen gañian?

E. Jaten dabela juicio gogorra, edo euren condenacinoya, ta eguiten diriala erru dun Jesucristoren gorputz ta odola dongaro erabilli balebe leguéz.

I. Beraz pecatu andija dá pecatu mortalian comulguetia?

E. Bai Jauna, ta eguin aldeitian pecatu adijenetati bat bada darua Jesucristoren gorputza lecu ezañera, ta diabruben artera.



I. Cer eguin biar dá comulgau orduban?

E. Jarri lecu batu baten ta gozatu gueure Jangoicuaz ta egon ezquerrac emoten ta gauza onac escatuten guichienez ordu lauren baten tercijuan, ta ez lazterregui urten Judasec leguez.

I. Pecatu ete da comulgauta guero baruba ausi baga chistuba botatia?

E. Ez Ostia santuba igaro ezquero: Alan bere ondo izango da albadedi puzca baten chistuba bota baga egotia, baña ezta pecatuba essan dan moduban.

*JAQUIN VIDE BIAR ANDICUAC.*
*Batio, ta Confesinoyaren*
*ganian.*

Icusi dogu cetaco dan Bautismuco Sacramentu santuba: Dacuscun orain cein biarra dan, noc emon leiquian, celan emoten dan, ta

Universidad de Deusto Biblioteca



nortzubei emon biar jaquen.

I. Nundi sartuten da Elisara?

E. Bautismo santuric.

I. Badago ceruric batiatuba eztanarentzat?

E. Ez, moduren baten batiatuba ezpada.

I. Cembat modutara batiatu izan leite?

E. Irutara, urezco bautismuaz, susco, ta odolezcuaz.

I. Cer dá urezco bautismua?

E. Egunian bein uragaz emoten dacuscuna.

I. Cer dá susco bautismua?

E. Da Jangoicuaren amodijozco damuba, edo amodijua bera, urezco bautismua artuteco gurari osuaz.

I. Cer dá odolezco bautismua?

E. Da Jesucristo gaiti vicitzia emotia, ta onelan salbau cirian Herodesec ill eraguin cituban seiñac.



I. Nora duaz bada bautismo baga ilten dirian seinchubac?

E. Limbua derichon toqui batera.

I. Ce pena darue lecu atan?

E. Eztarue sentiduco penaric infernucuac leguez; baña bai Jangoicuaren arpeguija inoz icusi ecina.

I. Beraz pecatu esquerguija dá seiñari bautismua galerazotia?

E. Bacocharen erruz bada.

I. Cembat modutara euqui lei batec erruba?

E. Modu bitara: bata, berariaz eguiten danian cerbait: sortuta daguan seinchuba galduteco ta bardin onetaraco conseju donguia emoten danian.

I. Ce pecatu dá au?

E. Da cerura diadar eguin daruan pecatuba, ta Jangoicuac irrime castigau oy dabe-

Universidad de Deusto Biblioteca



na. ¡O celan arima gaiso asco dirautzen Limboti Jancoicuari! Vengau eizu, Jaungoicuari! Vengau eizu, Jauna, guri galerazo deuscuben na, guri galerazo deuscuben vetico glorija. Eta euren pecatuben castiguban isildu daruez gueistaquerija onéc ondo confessau baga, ta jasoten dira infernura anche zucen confessetara.

I. Ceintzuc gueijago euqui darue erruba?

E. Jarten dirianac sabelian dauquén seiña galduteco peligruban: Eta alan euqui biar dá onetan ardura chito andija.

I. Ceiñec batiatu ley premina orduban?

E. Edoceñec ondo batiatuten badau.

I. Celan ondo batiatuten dá?

E. Ura botiaz, albadedi buruba ta ezpabere gorputzeco zatiric nausienera, ta ezanaz orduban Jesucristoc



orretaraco eracutzi cituban verbac.

I. Ce verba dirá orrec?

E. Nic batiatuten zaitud Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.

I. Eta cer eguin biar da seiña jaijoten bada illaren ichuriaz, edo eceri eraguiten ezteutzala?

E. Batiatu bada ezpadan ustelduta urten ezpadau, cerren mobimentu, edo cirquinic es eguitia ezta ill da daguan señale ciurra.

I. Cer eguingo dá galdu, edo botaten dan seiña bada dempora bagacua, ta chito chicarra?

E. Batiatu ardura baga ura botata verba onecaz: *Vicitzia badaucazu, Nic batiatuten zaitud Aitiaren ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.*

I. Cegaiti alan?

E. Cerren inoc orandiño

Universidad de Deusto Biblioteca



ciur eztaquijan nos sartuten dan arimia gorputzian, batzuc dinue gorputza arimatuten dala zortuta beriala, beste batzuc irugarren egunian, ta beste batzuc gueijaguan: ta da leguez dala, gure beguijacaz icuste dan gorputz chubac, edo gorputz ichuriac beti ditu egun asco: ta noc daqui arimiac urten deutzan edo ez galduten danian. Ceigaiti bada ucatuco jaco bautismua jaquiñez, edo ezta baida onetan.

I. Ondo eguiña dá seinchu galdubac urez beterico onci batera botatia batiatu baga?

E. Dá odolezco malcuacaz negar eguiteco gauzia! O ceimbat seinchu egongo ciarian gaur Jangoicuaren arpeguija icusten batiatu izan balitu euren guraso, edo besteren batec! Ecin essan lei negar baga. Jazo dá sarri seinchu chicar galdubac u-



retara bota, ta gentia beguira barrez, celan ebillen iguerian, ta emoten citubala vicitzan señaliac.

I. Eta cer eguin biar dá baldin galdu dan seña badator bolsachu baten barruban?

E. Erraz ebaguico dá bolsa, edo sacuchuba atzoscolacaz ta guero batiatu essan dan leguez barruco seinchuba, edo seina dirudiana. Eta ardura andia euqui biar dabe gurassuac topetaco galdu daben seiña, edo bota eztaguien odol moltzoren bat dalaco ustiaz.

I. Cer eguingo dau andraçume batec seindun daguala jarten bada eriotzaco peligruban?

E. Baldin gauza jaquina ezpada, adierazo, cer egoera edo estaduban aurquituten dan. Eta eztauque onetan achaquiaric pecatuco videti

Universidad de Deusto Biblioteca



seindun dagozan nescatillac bere: cerren gueijago juaco señari salvetian, gurasso erruba daucanari honra apur baten baño. Eguin daiquiana dá essan confessoriari cer jazoten jacon ta eguin onéc aguinduten deutzana.

I. Eta ondo eguiten dabé senide, edo echecuac eragoztiaz atera daquion seiña illdan andracumiari?

E. Eguiten dabé pecatu icaragarri bat. Gorputz ill batec guijago darua lurra emoten jacon demporan oiña ta achurraz sacatuten dabilcozanian, seiña ateraten deutzenian baño. Eta illtera doyan gurassuac escatu biar leuque mesede au seinchuba bautismuaz cerura juan, ta beragaiti Jangoicuari erreguтu daguion. San Ramon Nonato etzan gaur cerubaн aimbeste gloriaz egongo atera ezpalebe bere ama illaren



sabeleti. O Cura, ta Predicadore Jaunac! Zubei jagotzu gauza onec sarri eracustia zeuben ardi ta enzulai. Guztiac Jaquin biar leuque ondo celan batiatu onelango demporetan.

*Confesinoyaren ganian.*

Icusi dogu cetaraco dan confesinoya, ta cembat gauza biar dirian ondo confesetaco: dacuzcuzan preminazco gauza batzuc.

I. Cer dá concienciaco esamina edo billa-cuntzia?

E. Da eguin dirian pecatubac zucen confesetaco gogora aleguiñaz ecartia.

I. Nundi eguingo dá esamina au?

E. Jangoicuaren legueco amar mandamentubetatic, bost Elisacuetati, ta bacochac bere estaduco eguinvi-

Universidad de Deusto Biblioteca



de, edo obligacinoyetati.

I. Cembat dempora biar dá ondo eguiteco?

E. Eztago dempora jaquinic. Sarri confessau, ta Jangoicuaren bildurrian vici dirianac erraz, ta laster eguin darue. Baña cristinau nasai, pecatubetan nastaubac ta beranduric berandu confessetan dirianac, biar dabe dempora ta ardura gueijago.

I. Cembat confessinoe donga eguiten dirá?

E. Chito asco, edo negar eraguiteco beste,

I. Cegaiti ori?

E. Cerren damu benetacoric eruan eztaruen.

I. Certan igarten jaque?

E. Confessinoetic confessinoera ta pecatuti pecatura dabiltzalaco ifini gura eztabela ardura andiric pecatuban ez jausteco.

I. Cer dá propposituba?

E. Da vijotzeco gogo sen-



do bat ez gueijago pecaturic eguiteco, ta pecatuco videurco gustietatic alde eguiteco.

I. Pecatuben videti aldajala alde eguiten eztabenac, badarua benetaco proposituric?

E. Ez Jauna ezpada aozcua, ta falsua. Alan azco duaz infernura uste oquer bategas, beguitanduten jaquela ondo essan ezquero pecatubac, eta absolbicinoya artuten badabé gracijan dagozala.

I. Cein dá ezaubide, edo señaleric onena ondo confessetan dan edo ez jaquiteco?

E. Pecatubac zucen, ta bat bere ichi baga essatia, ta aurera vicitzia obatutia: baña vicitzia lengua bada da señale chito donguia.

I. Pecatu venial, edo arinac confessau biar dirá?

E. Ondo da, baña ezta

Universidad de Deusto Biblioteca



premiñazcua. Alan bere orretaraco jaquin biar da pecatu veniala baño eztana, cerren ezta baidan badago mortala etedan, confesau biarco dau. Azcoc artu darue venialtzat mortalac dirianac, batez bere seigarren mandamentuban, ezebere ezpalira leguez verba santar, escucaciquin, ta beste ibillune asco.

I. Cer adietan dozu confessinoyaren icenaz?

E. Essatia pecatu mortal, alan jaguinac, celan dudacuac bat pere lotzas ichi baga.

I. Pecatuba confesautzaco isten bada astu jacolaco bati ondo confessetan dá?

E. Bai bacocharen erruz ezpada, ta damu benetacua badurua, baña confesau biar dá urrengo confessinoyan.

I. Pecatu mortal bat confessau baga lotziagaiti isten dabena salbau leite.

E. Ecein salvau leite Santu guztiac eguin dituben baño penitencija gueijago eguingo balitu-bere.



I. Ondo confessetan dirá euren pecatubac guichitu, edertu, ta apainduta, leguez essaten ditubenac?

E. Ez, cerren essan biar dirian dauqueen gueistotasun, edo maliciaz, ta conciencíac eracusten daben leguez. Onetan utz eguin darue borondatez euqui dituben pensamentu charrac ta beste eguite ciquinac eurac gura ez ebela ciriala, essan daruenac.

I. Asco galduten ditu diabrubac lotza onegaz?

E. Bai, beguitandu eraguiten deutzezala milla gachtazun, edo dificultade. Eta alan ichi-eraguiten deutzez confessau baga chicarretaco loiqueria, ta euren burubacaz eguinico escuca atzeguingarrijac ta beste gauza asco.

I. Cer jazoten jaque one-

Universidad de Deusto Biblioteca



lango pecatari bildurtiai?

E. Darue mundu onetan quezcaz, ta aranzaz betericо vicitza bat, ta guero aguertu biarco ditube nai ta ez mundu guztiaren aurrian juicioco egunian.

I. Essan ete lei confessoriac pecatu confecinoian enzunicoric?

E. Ez, erre, ta puscatuco balebé bere.

I. Beraz eztago achaquijaric pecatuba confessau baga isteco?

E. Ez Jauna, ta alan confessetan ez ditubana bere gura utzes, ta arguiro daquijala condenauco dá betico, nun confessau biarco dituban infernuban ango confessore Luciferren aurrian.

I. Cer eguin biar dau urte azcuan, edo vicitza guztian pecaturen bat, edo gueijago isilduten egon danac?

E. Eguin confessinoe guz-



tien edo generala, arquitu aldaiquian confessoreric oenen ta jaquitunenaz.

I. Eta eguin, edo cumplidu biar dirá confessoriac emoten dituban penitencijac?

E. Bai Jauna alan eguinico pecatuben ordian leguez, celan aurrera eguin eztedin bitartecotzat emon ditubanac.

## FEDE, ESPERANZA ETA CARIDADECO

### *Actuac egunian egunian eguiteco.*

O neure Jangoicua! Sinistuten dot zariana Jangoico bacarra iru Personeetan.

Sinistuten dot, Jangoicuaren Semia dan bigarren Personia eguin zala guizon Ama Virginiaren Sabel garbijan Espiritu Santubaren gracijaz, jaijo ta ill zala curutzian gu salvetiarren, ta guri vi-

Universidad de Deusto Biblioteca



cimoduba eracustearren.

Sinistuten ditut voronda-te senduaz Creduan dagozan Articulu guztiac, cerren zarian eguija, jaquiturija, ta ontasuna bera, ta Elisa Ama Santiaren vitartez aguertu deustazulaco, ta gura dot vici ta ill Fede onetan.

O neure Jangoicua! Icharoten dot Jesucristo gueure Jaunaren merecimentu, ta bere gracijaz eguiten ditudan obra onac gaiti emongo deustazula, Ceruço Glorija ta mundu onetan ara elduteco biar ditudan gracija guztiac.

O neure Jangoicua! Ametan zaitud neure vijotz guztiaz, ta gauza guztiac baño gueijago, cerren zarian guztiz maitegarrija, ta ontasun guztijaren iturrija.

Ametan bere dot neure proximua neure buruba leguez, ta zure amoriaren. A.



I. Dirá biar biarrac Fede, Esperanza, ta Caridadeco Actuac.

E Bai, dira obligacinoecuac sarri vicitzan, baita erijotzaco arriscuban bére.

I. Celan eguin leiz iracurten eztaquijanac, edo ordenaz eguiten icasi ecin dabenac?

E. Essanagaz egunian egunian, ta ardura andijaz Credua, nun dagozan Articulu Fedeco guztiac, ta Aita guria edo Cristoc iracatzi euscun oracinua, nun dagozan Esperanza, ta Caridadeco acto ederrac biar dan devocino ta preztaeriaz essaten bada.

I. Eta pecatu mortalaren damu benetacoric artu gura eztabenac, eguin ley eguijazco Caridadeco actoric?

E. Ez, ta auaz essan arren ametan dabela Jangoicua, dino guzur andi bat, cerren

Universidad de Deusto Biblioteca



arima baten ecin batu leite pecatu mortalagaz Jangoicuaren benetaco amodijo puru edo garbiric.

I. Cer eguin biar dau bada pecatu mortalian daguan batec Caridadeco actuac eguiteco?

E. Artu pecatubaren damu eguijazco bat, onduteco ta confessetaco propocitubaz.

### *GOISIAN OITI JAGUI ta bertan fedez Jangoicuari beguiratu, ta ceñatu, ta egunataco obrac esquiniteco oracinua.*

Neure Jangoicua! Esquerrac ta alabantzac emoten deutzudaz cerren egun onetara zeu serbiu ta ametaco ecarri nozun, infernuban, beste asco dagozan leguez, nic bere egotia mereci nebala. *Aita guria ta Ave Marija.*



Gaurco neure pensamentu, verba ta eguite guztiac esquiniten ta opa deutzudaz, neure Jesus onaren odol, ta merecimentu andijacaz batera, ceure glorijaric andijeneraco. *Aita guria ta Ave Marija.*

Damu dot Jauna neure pecatu guztijac gaiti, cerren ametan zaitudan gauza guztien ganian vorondate sendo bategaz, ceure gracija, lagun dodala, ez gueijago ofendietaco. Artuten dot gogua irabazteco gaur dirian indulgencija guztiac neure arimaco zorren alderaco, ta purgatorijoco arimen socorruraco. Orretaraco opa bere deutzudaz gaurco neque, lan, atzacaba, ta pena guztijac, ta obeto artubac izan ditezan esquiniten deutzadaz Ama Virgina Santisimiaren escubetati, ceñi ezquetan deutzadan bere sarrera garbija

gaiti, gorde naguijala gaur ta beti tentacino guztietati, ta zure gracija galdu eztaguidan. *Essan iru Ave Marija Ama Virginiaren Concepcinuaren honraan.*

Neure Aiñgueru Guardaco maitia Gorde naguizu gaurco neure pausu, verba, ta gauza guztietan, goitu ez naguijen neure arimaco arerijuac, eguin eztaquidan ceure aurrian neure Jangoicuaren contras gauzaric; neure oraciño ta obra onac eruan eguizuz Jangoicuaren Tronubaren aurrera, ta alcanzau eguidazu güenian erijotza on bat, *Aita guria ta Ave Marija bere honraan.*

*Ez igaro barriz egunic S. Joseri cerbait escatu baga.*

*Maija bedeincatuteco errezuba.*

Aitiaren, ta Semiaren, ta



Espiritu Santubarèn icenian.

Neure Jauna ta Jangoicua: gure esperancia dago zugan, ta emoten dozu bere demporan jateco biar doguna. Zure escuba zabaldu, ta guztioc bendiciñoz beteetan gaituzu. *Aita guria ta guero essango dá*

Doe guztien emolia, ta gueure Jauna: zure escuti guc artu, ta jan biar dogun guztija bedeincatu eguizu Jesucristo ceure Semia gaiti, bere icenian, Aita eta Semiac, ta Espiritu Santubac guztioc bedeincatu gaguizala, ta bere Glorijaco Maira betico eruan gaguizala. *Amen.*

*JAN ESQUERO gracijac emoteco.*

Aitiaren, ta Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian.

Esquerrac ta alabanzac emoten deutzuguz, Jauna

orain eta beti eguin deuscuzuzan mesede guztiac gaiti. Zu ganic gure gañera etorri dan bendeciño, ta mesede onegaiti mundu guztiac beti alabau zaguizala. Amen.

*Aita guria ta guero*

Gueure onguin guztiai, Jauna pagau eyozu ceure icen Santuba gaiti ta arima fiel guztiac eruan eguizuz Cerura ceu alabetara.

*Aita guria ta guero.*

Arima fiel guztiai Jangoicuac dijela betico descansuba ta guri digula bere gracija ta baquia. Emen batu gaituban Jaunac berac Ceruco glorijan guztioc batu gaizala. Amen.

*Ave-Maritacuac.*

I. Ainguerubac barri onac Marija Virginiari emon eta Espiritu Santubaren gracijaz Semia bere Sabelian artu eban. *Ave Marija*



II. Ona Jaunaren servitzarija, eguin bedi nigan ceure Verbiaz batera. *Ave Marija.*

III. Jangoicuaren Semia Guizon eguin zan, ta gure artian vici izan zan. *Ave-Marija.*

*Jangoicuaren Ama Santia erregu eguizu gu gaiti. Cristoren aguintzarijen duin izan gaitian.*

*Oracinua.*

Iguzu arren, Jauna gueure arimetan ceure gracija, Aiñguerubac barri onac ecarri, ta Cristo ceure Semiaren Guizon eguitia ezagutu dogunoc, bere Pasiño, ta Curutzia gaiti betico glorijará eruanac izan gaitian. Amen.

Jangoicuari nai daquijola gueure nequezale, ta basserritarretan iraun, sartu, edo gueitutia devocino onec.

Universidad de Deusto Biblioteca






# AMA VIRGINIAREN

## LETANYA.

Kyri eleyson.
Christe eleyson.
Kyrie eleyson.
Christe audinos.
Christe exaudi nos.
Pater de Cœlis Deus.
Miserere nobis.



Filii Redemptor mundi Deus.
Miserere nobis.
Spiritu Sancte Deus.
Miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus.
Miserere nobis.
SANCTA MARIA.
Sancta Dei Genitrix.
Sancta Virgo Virginum.
Mater Christi.
Mater Divinæ gratiæ.
Mater Purissima.
Mater Castissima.
Mater Inviolata.
Mater Intemerata.
Mater inmaculata.
Mater Amabilis.
Mater Admirabilis.
Mater Creatoris.
Mater Salvatoris.
Virgo Prudentissima.
Virgo Veneranda.
Virgo Prædicanda.
Virgo Potens.
Virgo Clemens.
Virgo Fidelis.
Speculun Justiciæ.

ORA PRO NOVIS.

Universidad de Deusto
Biblioteca



Sedes Sapientiæ.
Causa nostre lætitiæ.
Vas Spirituale.
Vas Honorabile.
Vas insigne Devotionis.
Rosa Mystica.
Turris Dabidica.
Turris Eburnea.
Domus Aurea.
Fœderis Arca.
Janua Cœli.
Stella Matutina.
Salus infirmorum.
Refugium peccatorum.
Consolatrix aflictorum.
Auxilium Christianorum.
Regina Angelorum.
Regina Patriarcharum.
Regina Prophetarum.
Regina Apostolorum.
Regina Martyrum.
Regina Confessorum.
Regina Virginum.
Regina Sanctorum omnium.

ORA PRO NOVIS.

V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.



R. Parce nobis Domine.
V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
R. Exaudi nos Domine.
V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,
R, Misere nobis.
V. Ora pro nobis sancta Dei Genitrix.
R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

## OREMUS.

Gratiam tuam quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filii tui incarnationem cognovimus per pasionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur: per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

FIN.